

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren erabakia, itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren karrerako funtzionario-plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko oinarri espezifikoak eta deialdia onartzekoa

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, 2021eko ekainaren 15ean egindako bilkuran, honakoa erabaki du:

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren erabakia, itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren karrerako funtzionario-plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko oinarri espezifikoak eta deialdia onartzekoa.

1. Konbokatzea hutsik dagoen itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren plaza hornitzeko hautaketa-probak, lehiaketa-oposizio bidez.

2. Onestea I. Eranskin gisa ageri diren eta Arabako Batzar Nagusietako itzulpen-, zuzenketa- eta interpretazio-teknikariaren kidegoko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarria espezifikoak.

3. II. Eranskin gisa ageri den gai-zerrenda onestea.

4. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, erabaki hau eman duen organoari berari, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua dela-eta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA

I ERANSKINA

GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOKO KARRERAKO FUNTZIONARIO-PLAZA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, ITZULPEN-, ZUZENKETA- ETA INTERPRETAZIO-TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT HORNITZEKO

1. DEI EGITEN DIREN PLAZAK.

Dei egiten da Arabako Batzar Nagusietako itzulpen, zuzenketa eta interpretazio teknikari funtzionario baten lanpostu hutsa.

Plaza deskribatuta dago Arabako Batzar Nagusietako lanpostuen zerrendan, zeina onetsi baitzen Mahaiak 2019ko abenduaren 3an eta argitara eman baitzen abenduaren 13ko ALHAOn. Honako ezaugarriak ditu:

– TALDEA: A1.

- KATEGORIA: Itzultzaile interpretaria.
- ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusia, Vitoria-Gasteiz, Vicente Goikoetxea kalea, 2.
- XEDE-OSAGARRIAREN MAILA: 23.
- OSAGARRI ESPEZIFIKOA: Batzar Nagusietako Mahaiak onetsitako lanpostuen zerrendan adierazitakoa.
- LANALDIA: Batzar Nagusietako Mahaiak Ganberako langileentzako adierazitakoa. Lanpostuak berez dakar zerbitzu-beharrengatik eskuragarritasun askea.
- HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4., derrigorrezkoa.
- Derrigorrezko ITT xartelak: Microsoft Word 2010 Aurreratua, Microsoft Excel 2010 Aurreratua, Microsoft Access 2010, Microsoft Outlook 2010.

Lanpostuaren funtzioak:

Beteko dituen zeregina izango dira euskara-gaztelania edo gaztelania-euskara itzulpena egi-tea (jarduera parlamentarioari dagozkion testuak zein administrazio parlamentarioak sortutako testuak), bilkura eta ekitaldi parlamentarioetako hitzaldien interpretazioa, aholkularitza linguistikoa barne dokumentaziorako, itzulpenaren eta zuzenketaren zeregin osagarrietan parte hartzea (terminologia, erredakzioa, informatika), bai eta esleitzen zaizkion pareko zeregin guztiak.

2. ESKAKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, batxilergo edo teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Azterriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

Lehenengo proba egin aurretik, ezagutza informatikoak egiaztatzen dituzten honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Microsoft Word 2010, maila aurreratua.
- Microsoft Excel 2010, maila aurreratua.
- Microsoft Access 2010.
- Microsoft Outlook 2010.

Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGunea zentro publikoetan ITT xartela egiaztapen-sistemaren bidez eskura jartzen dituen moduluei dagozkien informatika eta mekanografiako ezagutzak. ITT xartela sistemaren bidez egiaztatuko dira.

Kalifikazio-epaimahaiak epe bat ezarriko du izangaiek ITT xartelen egiaztapena aurkez ditzaten. Eskatutako ITT xartelak egiaztatzen ez dituzten pertsonak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

3. EPAIMAHAIA.

Deialdi honetan epaimahaia lehendakari batek eta bost kidek osatuko dute; bakoitzak bere ordezkaria izango du, eta karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkaria izango da.

Epaimahaiaren kide-kopuruari buruzkoak ez diren gainerako alderdietan (espezialitatea, parekotasuna, IVAPeko ordezkaria, aholkulariak eta abar) aplikagarri izango da Arabako Batzar Nagusietako hautaketa-prozesuen oinarri orokorretan ezarritakoa.

4. HAUTAKETA-PROZESUA.

4.1 Oposizio-fasea.

Oposizio-aldia: 85 puntu.

Aldi honi dagozkion ariketak egingo dira. Ariketa horiek guztiak nahitaezkoak eta kanporatzailek izango dira. Oposizio-aldiak arlo teorikoa eta arlo praktikoa izango ditu. Halaber, epaimahaiak erabakiko du hiztegiaren balizko erabilerari buruz proba praktikoa bakoitzean.

Kalifikazio-epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketak oinarri hauetan ezarritakoaz bestelako ordenan egitea; halaber, hainbat ariketa deitu ahal izango ditu egun berean, edo ariketa baten zatiak egun desberdinetan, betiere deialdia gutxienez bost egun natural lehenago eginez.

Aurreko proba kanporatzailea gairak dituen probak baino ez dira ebaluatuko.

Lehiatzaileei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Deialdi honen gertatzen diren inguruabarrak direla-eta, kalifikazio-epaimahaiak erabaki ahal izango du, baldin eta probaren bat ezin bada hautagai guztientzat aldi berean egin, hautagaiak proba horietan zein hurrenkeratan arituko diren zehazteko zozketa bat egitea. Zozketa hautaketa-prozesuaren edozein unetan egin ahal izango da, baita proba edo ariketa egiten den egunean bertan ere.

Hautaketa-probak garatu bitartean aukera-berdintasuna eta tratu-berdintasuna bermatzeko, kalifikazio-epaimahaiak proba desberdinetako deialdiaren baldintzak egokitu ahal izango ditu lehiatzaileak ezin bada proba egingo den lekura joan haurdunaldi, erditze, eriondo edo epaimahaiak askatasunez balioetsitako beste osasun-eragozpen larri batzuegatik. Inguruabar hori epaimahaiari jakinarazi beharko zaio, proba egin baino lehenago, eta ziurtagiri mediko baten bitartez egiaztatu beharko da.

Kalifikazio-epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko ditu egokitzea behar duten eta eskaera hala adierazi duten lehiatzaileentzat, beste lehiatzaileekiko aukera-berdintasunean egon daitezen, betiere hori eginda probaren edukia hutsaltzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

4.1.1 Lehenengo ariketa. Gai-zerrenda.

Lehen ariketa teorikoa izango da, 25 puntukoa, eta bi zati izango ditu. Zati bakoitzari galdegegi bat egokituko zaio eta lau aukeraren artean hautatu beharko da erantzuna. Ariketa hau zuzentzean, erantzun zuzenen kopuruari errorearen kopuruaren herena kenduko zaio ($R=A-E/3$). Erantzun gabeko galderak eta erantzun bakoitzak ez dira zigortuko.

Lehiatzaileek lortutako puntuazioa erantzun zuzenen kopurua izango da, behin erantzun okerren kenketa eginda, goian azaldutako proportzioan.

Epaimahaiak finkatuko du zati bakoitza egiteko orduak.

Epaimahaiak, dagokion erabakia hartuta, zuzentzat jotako erantzunak argitaratuko ditu Arabako Batzar Nagusien webgunean, eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenean.

Epaimahaiak, eska daitekeen gutxieneko maila eta aurkeztu direnen ezagutza-maila kontuan hartuz eta lehiatzaile bakoitza zein den jakin gabe, ariketaren zati bakoitza gairak dituzko gutxieneko puntuazioa zein izango den erabakiko du, eta erabaki hori argitara emango du.

Lehenengo zatia II. eranskineko A gai-zerrendari buruzkoa (zati orokorra) izango da eta 5 puntuko balorazioa izango du. Bertan, 50 galderako galde-sorta bati erantzun beharko zaio.

Bigarren zatia II. eranskineko B gai-zerrendari buruzkoa (zati espezifikoa) izango da eta 20 puntuko balorazioa izango du. Bertan 200 galderako galde-sorta bati erantzun beharko zaio. Zati horretan, galde-sortak hizkuntza-bertsio bakarra izango du, zeinean galderak eta horiei dagozkien erantzun-aukerak idatziko baitira galdetzen den gaia B gai-zerrendan adierazita dagoen hizkuntzan.

4.1.2 Bigarren ariketa. Itzulpena.

Bi zati izango ditu:

a) Euskarara itzultzea, gehienez ere bi orduko tartean, eduki juridikoa izango duen gaztelaniako dokumentu bat, gehienez 60 lerro izango dituena.

b) Gaztelaniara itzultzea, gehienez ere bi orduko tartean, eduki juridikoa izango duen euskarazko dokumentu bat, gehienez 60 lerro izango dituena.

Ariketa honetan 20 puntu jaso ahal izango dira guztira:

– 10 puntu a) zatiari dagozkio, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

– 10 puntu b) zatiari dagozkio, eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

4.1.3 Hirugarren ariketa. Interpretazioa.

Euskarazko hitzaldi parlamentarioen interpretazioa (aldi bereko itzulpena) egin beharko da gaztelaniara. Interpretazioak ezin izango du 20 minutu baino gehiago iraun.

Bi zati izango ditu:

a) Interpretazio zuzena, laguntza-testurik gabe.

b) Interpretazioa, hizlariak oinarritzat hartutako testu batek lagunduta. Testu hori interpretazioa hasi baino 5 minutu lehenago emango zaio lehiatzaileari.

Ariketa hau 20 punturekin baloratuko da:

– 12 puntu a) zatiari dagozkio, eta gutxienez 6 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

– 8 puntu b) zatiari dagozkio, eta gutxienez 4 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

4.1.4 Laugarren ariketa. Zuzenketa.

Bi zati izango ditu:

a) Legebiltzarreko bilkuretako hitzaldien transkripzio diren bi testu, bat euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, gainbegiratu eta zuzendu beharko dira. Proba testu mekanografiatu baten gainean egingo da eta bilkuraren grabazioa baliatu beharko da egokitze- eta zuzentze-lana egiteko.

b) Bigarren ariketan Legebiltzarreko bi idazki, bat euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, zuzendu beharko dira.

Bi ariketetan hiru eratako zuzenketa egin beharko da: 1) ortografikoa, 2) linguistikoa (morfo-sintaktikoa eta lexikoa) eta 3) puntuazioarena, testu ulergarria eta formaz koherentea lortzeko.

Ariketa hau egiteko bost ordu izango dute gehienez ere lehiatzaileek, eta ariketa osatzen duten bi zatien artean etenaldi bat egingo da.

Ariketa hau 20 punturekin baloratuko da:

– 6 puntu a) zatiari dagozkio, eta gutxienez 3 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

– 14 puntu b) zatiari dagozkio, eta gutxienez 7 puntu lortu beharko dira ariketaren zati hau gainditzeko.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitza, edo haren zati bat, bukatu ondoren epaimahaiak argitara emango ditu behin-behineko emaitzak ahalik eta lasterren, eta epe bat ezarriko du, gutxienez ere hiru egun balioduneko epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera konstatuta, egin beharreko erreklamazioak egiteko.

Lehiatzaile kopuruaren arabera, epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketaren bat edo ariketa baten zatiren bat horretarako gaitutako ordenagailu batekin egitea.

4.2 Euskarako proba.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azken eguna hautaketa-prozesu honetarako aurreikusitako euskara-deialdi bateratuko lehen proba egiten den eguna izango da.

Arabako Batzar Nagusiek ofizioz eskatuko dio Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuari izangaiek lortutako ziurtagiria.

Erregistro horretan ez dagoen hizkuntza-eskakizun edo baliokideren bat daukatenez egiaztatu beharko dute, Kalifikazio Epaimahaiak ezartzen duen epearen barruan eta lehen paragrafoan ezarritako mugaeguna baino lehen.

Kalifikazioa gai edo ez izango da. Ezagutza hauek egiaztatzen ez dituztenak ez gaitzat jo eta baztertuta geratuko dira.

4.3 Lehiaketa-Aldia.

Lehiaketa-aldia: 24 puntu.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak balioetsiko dira. Merezimenduen baremo honen arabera dagozkien puntuak esleituz egingo da:

4.3.1 Esperientzia.

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, A1 taldeko lanpostuetan, non lortu nahi den lanpostuaren funtzioaren bat – hau da, itzulpena, interpretazioa eta/edo zuzenketa – bete izan den, edozein harreman juridikoren pean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzako errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak baldin badira.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikulua barne hartzen dituenak jotzen dira, unibertsitate publikoak, Gorte Nagusiak, parlamentu autonomikoak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak barne, berekin dakartanak herri administrazioako aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Esperientzia horri, gehienez, 18 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

Egiaztatutako eginkizunen (itzultzea, interpretatzea edota zuzentzea) kopurua:

Hilabete bakoitzeko puntuazioa:

Bat: 0,04.

Bi: 0,08.

Hiru: 0,1.

Zenbaketa egiteko, lan egindako aldien batura egingo da, eta, behin batura hori eginda, ez dira aintzat hartuko hilabetetik beherako zatiak. Ondorio horietarako, 30 egun naturaleko multzoa joko da hilabetetzat. Balorazio ezberdineko hilabetetik beherako zatiak batuta hilabetea gainditzen bada, lortzen den batura baloratuko da batutako zatikien baloraziorik baxuenarekin.

Erabat ezinbestekoa izango da aurkeztea erakundearen ziurtagiri bat, non azalduko den posturaren izena eta egindako lan zehatzak, eta, orobat, lanon iraupena. Era horretan, epaimahaiak egiaztatu ahal izango du baloratu beharreko funtzioetan (itzulpen-, interpretazio-, zuzenketa-lanetan) benetan aritu izana.

Zerbitzuak Arabako Batzar Nagusietan eman dituzten lehiatzaileek ez dute ziurtagiri hori aurkeztu beharko.

4.3.2 Informatikako ezagupenak.

Betekizuna ez direnean, informatika-ezagutzen egiaztapena meritu gisa balioetsiko da, Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGunea zentro publikoetan ITXartela egiaztapen-sistemaren bidez eskura jartzen dituen moduluak lortzearen bitartez.

Ziurtagiriak lortzeko mugaeguna izango da oinarri hauen 2. puntuari betekizun gisa ezarritako ITXartelen egiaztapenak aurkezteko Epaimahaiak jarritako epearen azken eguna.

Gehienez puntu 1ekoa izango da, honako baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Mekanografia	0,60
Windows 7	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Geroko bertsio baten egiaztapenak aurreko bertsioarenak ezeztatuko ditu.

4.3.3 Titulazio akademikoak eta prestakuntza eta hobetze ikastaroak.

Titulu akademikoak, gehienez ere 3 puntu, baremo honen arabera:

- Itzulpengintza eta Interpretazioko doktoregoa, 3 puntu.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentzia edo unibertsitate-gradua, 2 puntu.

4.3.4 Hizkuntzak.

Gehienez 2 puntu, honako baremo honen arabera:

Ingelesa, frantsesa eta alemana, honen arabera:

C2 edo baliokidea: puntu 1.

C1 edo baliokidea: 0,75 puntu.

B2 edo baliokidea: 0,50 puntu.

Horretarako, aintzat hartuko dira bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzeko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren «Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailen baliokide diren titulu eta ziurtagiriak» eranskinean agertzen diren titulu eta ziurtagiriak.

Hizkuntza beraren maila bat baino gehiagoren ziurtagiria izanez gero, maila altuenekoa bakarrik baloratuko da.

4.4 Praktika- eta prestakuntza-aldia.

Praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere 6 hilabete iraungo duena, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik.

**II. ERANSKINA. ITZULPEN, ZUZENKETA ETA INTERPRETAZIOKO
TEKNIKARI-PLAZARAKO GAI-ZERREDA**

A GAI-ZERREDA (zati orokorra)

1.– Espainiako 1978ko Konstituzioa. Egitura eta edukia. Oinarrizko printzipioak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak. Estatuaren botereak. Botere legegilea, botere betearazlea eta botere judiziala. Botereen arteko harremanak.

2.– Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Printzipio orokorrak. Estatuaren eta EAEren arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. EAEko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. Autonomia Estatutuaren erreforma.

3. 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde-antolaketari buruzkoa. (1-33 artikulua).

4. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa (1 - 27, 38 - 44ra).

5. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa (47 - 69 artikulua).

6. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (I): Xedapen orokorrak. Batzar Nagusien eraketa.

7. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (II): Batzarkideak.

8. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (III): Batzarkide taldeak.

9. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (IV): Batzar Nagusien antolaketa.

10. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (V): Funtzionamendu arau orokorrak.

11. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (VI): Araugintza-prozedura.

12. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (VII): Batzar Nagusiek Foru Aldundia kontrolatzea.

13. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (VIII): Mozioak, Foru Aldundiaren komunikazioak, adierazpen instituzionalak, informazio-bilkurak eta agerraldiak.

14. Arabako Batzar Nagusien Funtzionamendu Araudia (IX): Batzar Nagusiek bestelako jarduketak.

15. Euskal funtzio publikoaren araubide juridikoa (6/1989 Legea, uztailaren 6koa). Xedea. Aplikazio-eremua. Funtzionario publikoen eskubide eta betebeharrak. Diziiplina-araubidea.

16. Emakumeen eta gizonen berdintasuna (4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Euskal botere publikoen jarduna arautu eta gidatu behar duten printzipio orokorrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Araudian eta administrazio-jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak. Genero-indarkeriaren aurkako politikak. Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

17. Hizkuntza Normalizazioa. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea (97-99ra artikulua). Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legea (1-14 artikulua).

18. 39/2015 eta 40/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Prozeduran interesdunak direnak: jarduteko gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua. Administrazio-prozeduraren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaitzea. Administrazio-jarduera aurkaratzeko baliabideak. Administrazioak ofizioz berrikustea. Administrazio-errekurtsoak: kontzeptua eta motak.

19. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena): printzipio orokorrak, egoitza elektronikoa, Interneteko ataria, administrazio publikoak identifikatzeko-sistemak, administrazio-jarduketa automatizatua, sinadura-sistemak eta sinadura elektronikoa, dokumentuak elektronikoki artxibatzea.

20. Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (1 – 24 artikulua).

21. Datu pertsonalen babesaren oinarriko alderdiak (2016/679 Erregelamendua (EB) 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa). Aplikazio-eremua. Kontzeptuak eta printzipioak. Datu pertsonalak tratatzeko zilegitasuna. Datuak babesteari buruzko eskubideak. Tratamenduko jardueren Erregistroa edo Inbentarioa.

B GAI-ZERRENDA (zati espezifikoa)

1.– Interpretazioa eta itzulpena. Esan osteko interpretazioa eta aldiberekoa. Interpretazio-prozesua. Interpretareen dohainak. Zer den interpretatzea. Mezua eta hizlaria. Mezuaren analisia. Gaien ezaguera. Hizkuntzen ezaguera. Gaiak eta hiztegia. Interpretatea bitarteko.

Bibliografia: Arrimadas, Jesus (1985). «Interpretaritzia». SENEZ, 2, pp. 59-78.

2.– Ikusizko itzulpena. Sarrera. Marko teorikoa: testuingurua. Zer da ikusizko itzulpena? Ikusizko itzulpenaren funtzioak. Ikusizko itzulpena euskara-gaztelania hizkuntza-konbinazioan: berezitasunak.

Bibliografia: Torralba Rubinos, Claudia María (2018). «Ikusizko itzulpena euskara-gaztelania norabidean hiru arlotan: konferentzietan, erakundeetan eta justizian». SENEZ, 49, pp. 239-250.

3.– ES>EU eta EU>ES interpretazioko arazo nagusiak, interpretazio-estrategiak, konbinazio bakoitzeko egoera komunikatiboan ezaugarriak.

Bibliografia: Pagola, Juanjo eta Urkia, Joseba (2008). Interpretateen eskuliburua. Oñati: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea.

4.– Varias clases de traducción. La traducción directa. La traducción oblicua. La traducción libre. Traducción interlineal y traducción yuxtalineal.

Bibliografia: García Yebra, Valentín (1982). Teoría y práctica de la traducción. Madrid: Gredos, pp. 327-332.

5.– Itzulpen-estrategiak. Estilistika. Parataxia. Zeharbideak.

Bibliografia: Agirre Berezibar, Jesus Maria (2009). Itzulpen estrategiak. Vitoria-Gasteiz: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp. 17-46.

6.– Itzulpen-estrategiak (II). Antolaketa. Mintzagaia. Galdegaia. Mugarriak. Enumerazioak.

Anafora.

Bibliografia: Agirre Berezibar, Jesus Maria (2009). Itzulpen estrategiak. Vitoria-Gasteiz: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp. 65-115.

7.– Itzulpen-estrategiak (III). Egiturak. Erlatiboak. Partizipioak. Gerundioak. Marka prepositibo batzuk.

Bibliografia: Agirre Berezibar, Jesus Maria (2009). Itzulpen estrategiak. Vitoria-Gasteiz: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp. 119-160.

8.– Itzulpen-estrategiak (IV). Mikrosintaxia. Izen-sintagma. Aditz-sintagma. Erliebe-jokoak.

Bibliografia: Agirre Berezibar, Jesus Maria (2009). Itzulpen estrategiak. Vitoria-Gasteiz: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp. 163-192.

9.– Hiztegia. Maileguak. Kalkoak. Lagunartekoak. Gaizki eraturakoak. Gaizki aukeratutakoak. Aldaera dialektalak. Itzuli gabeko izenak eta sintagma. Ofizialak ez diren izenak.

Bibliografia: Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

10.– Izen-sintagma. Kasuak desegoki. Katgoria gramatikal-semantikoak. Izen propioak. Hitz-elkarketa. Deklina-atzizkien ahozko formak.

Bibliografia: Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

11.– Aditz-sintagma. Denbora eta aspektua. Modua eta pasiboa. Iragakorrek eta iragangaitzak. Jokatu-jokatugabeak, laguntzailerik edo errorik gabeak. Komunztadura. Ahozko formak.

Bibliografia: Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

12.– Esaldia. Sintagmak solte. Ordena. Galdegia. Aposizioak. Esaldi koordinatuak. Esaldi subordinatuak. Antolatzaileak. Modalizatzaileak.

Bibliografia: Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

13.– Testualitatea. Kendu, erantsi eta egokitu beharrekoak.

Bibliografia: Ahozko testuak zuzentzeko irizpideak. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

14.– Léxico. Sintagma nominal. Anáfora. Determinativos. Preposición. Excesiva determinación.

Bibliografia: Corrección de textos orales y escritos. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

15.– Sintagma verbal. Aspecto y tiempo. Voz y estructura. Concordancia.

Bibliografia: Corrección de textos orales y escritos. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

16.– Oración. Estructuras. Que. Gerundio. Otros (con, sin, así como, pero, para, otros casos). Foco. Orden. El complemento nominal. Los complementos verbales. Enunciados entremezclados. Enumeraciones. Enunciados muy trabados.

Bibliografia: Corrección de textos orales y escritos. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak.

http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

17.– Textualidad. Entorno y oralidad. Organizadores. Determinativos y valorativos. Contenido temático. Repetición. Sinónimos. Suprimir, añadir y reformular.

Bibliografia: Corrección de textos orales y escritos. Eusko Legebiltzarraren jarraibideak. http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

18.– Euskara juridiko-administratiboaren eragileak.

Bibliografia: Ezeiza Ramos, Joseba. Euskara juridiko-administratiboaren eragileak gaur egun. <http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2010/11/1.2.4. Euskara-juridiko-administratiboaren-eragileak-gaur-egun Emaiza-orokorrak 2010.pdf>.

19.– El lenguaje jurídico como tecnolecto o lengua de especialidad. El lenguaje jurídico: más que un tecnolecto. Caracteres externos. Rasgos morfológicos y sintácticos. Rasgos de estilo.

Bibliografia: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 2-11.

20.– Problemas de significado y sentido. El significado y el sentido. Lo implícito y la responsabilidad jurídica. Homonimia y polisemia. Paronimia e ideas afines. Indeterminación. Vaguedad. Ambigüedad. Ambigüedad referencia. Discurso vacuo o verborrea. Tautologías y contradicciones. Los eufemismos. Circunloquios y redundancias. Referencia a lo anterior.

Bibliografia: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 98-108.

21.– Administrazio-hizkera. Administrazio-kontzeptuen gaineko iruzkinak. Administrazioaren hizkeren ezaugarriak.

Bibliografia: Atxabal Rada, Alberto; Gallastegi Aranzabal, Cesar; Goikoetxea Oleaga, Lorenzo; Urrutia Badiola, Andres; Urrutia Libarona, Iñigo (1997). Euskera, Zuzenbidearen hizkera. Bilbo: Deustuko Unibertsitate, pp. 219-226.

22.– Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa. Sarrera.

Bibliografia: Eusko Legebiltzarra eta Euskaltzaindia (2017). Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa. Bilbo: Euskaltzaindia, pp. 15-23.

23.– Hizkera inklusiboa (Eusko Legebiltzarraren gida).

Bibliografia: Eusko Legebiltzarra. (2020). Hizkera inklusiboaren gida.

http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

24.– Lenguaje inclusivo (Guía del Parlamento Vasco).

Bibliografia: Eusko Legebiltzarra. (2020) Guía de lenguaje inclusivo.

http://www.legebiltzarra.eus/opusic/e_oposic_1.html.

25.– Esaldiaren antolamendu orokorra.

Bibliografia: Garzia Garmendia, Juan. (1997). Joskera lantegia Vitoria-Gasteiz: IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, pp. 153-277.

26.– Osagaien ordena eta galdegaia.

Bibliografia: Alberdi Larizgoitia, Xabier eta Sarasola Errezkin, Ibon. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, pp. 21-46.

27.– Perpausen sintaxia (I). Juntagailuak, menderagailuak eta lokailuak. Juntagailuen inguruko zenbait zalantza. Menderagailuen inguruko zenbait zalantza.

Bibliografia: Petirena, Patxi. (2011). Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, pp. 25-75.

28.– Perpausaren sintaxia (II). Kategoria gramatikalak. Izena. Izenordaina. Determinatzaileak. Adjektibo-sintagma. Adberbio-sintagma. Aposizioa. Aditza. Definizioak: moldeak eta joskerak.

Bibliografia: Petirena, Patxi. (2011). Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, pp. 83-229.

29.– Egitura pasiboak.

Bibliografia: Alberdi Larizgoitia, Xabier eta Sarasola Errezkin, Ibon. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, pp. 160-164.

30.– Perpaus erlatiboak.

Bibliografia: Alberdi Larizgoitia, Xabier eta Sarasola Errezkin, Ibon. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, pp. 199-217.

31.– Hizkuntzak eta haien arteko eraginak. Kalkoak. Nola identifikatu kalko okerrak. Perpaus barneko elementuen kalkoak. Perpausetik gorako kalkoak. Gainerakoak.

Bibliografia: Garzia Garmendia, Juan. (2005). Kalko okerrak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

32.– Hau guztia (Euskaltzaindiaren 4. araua).

Accesible en www.euskaltzaindia.eus.

33.– Zenbakien idazkeraz (Euskaltzaindiaren 7. araua). Zenbakien deklinabideaz (hiru, lau) (Euskaltzaindiaren 8. araua). Bat eta batzuk-en deklinabidea (Euskaltzaindiaren 12. araua). Ordinalen eta banatzaileen idazkera (Euskaltzaindiaren 18. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

34.– Aditzoinen forma (Euskaltzaindiaren 28. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

35.– Partitiboaren erabilera okerra (Euskaltzaindiaren 15. araua). Partitiboa baiezko perpaus-tan noiz eta nola (Euskaltzaindiaren 30. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

36.– Egiteko asmoz (Euskaltzaindiaren 41. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

37.– -go atzikia eta izen multzokariak (Euskaltzaindiaren 73. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

38.– Komuntadura aposizioetan (Euskaltzaindiaren 109. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

39.– Izen sintagmen arteko juntadura dela eta (Euskaltzaindiaren 111. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

40.– -eLAKO eta -eN atzizkiak izenak gobernatutako perpaus osagarrietan (Euskaltzaindiaren 16. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

41.– Adierazpen izendatzaileen deklinabidea (Euskaltzaindiaren 183. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

42.– Erdal hitzen deklinabidea (Euskaltzaindiaren 184. araua).

Baliabidea: www.euskaltzaindia.eus.

43.– Hitz elkartuak. Bikoiztapenak. Dvandva-elkarteak. Bahuvrīhi-elkarteak. Izaera-elkarteak. Lotsagabe, lo falta moduko elkarteak. Aditz-elkarteak. Hitz-elkarte sintetikoak. Asmo-elkarteak. Egin berri moduko elkarteak. Jarleku moduko hitz elkartuak. Eguzki-lore: menpekotasunezko izen elkarteak. Atributu- eta koordinazio-elkarteak. Atsegin-kontentu: tautologiazko elkarteak. Aposizioak. Izengoiti-elkarteak. Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurak. Exoelkarteak.

Bibliografia: Zalbide, Mikel (1992). Hitz-Elkarketa/4 (Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera). pp. 46-102.

Baliabidea: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/795.pdf.

44.– Hitz elkartuen osaera eta idazkera.

Bibliografia: Euskaltzaindiaren 25. araua. www.euskaltzaindia.eus.

Zubimendi, Joxe Ramon (2004). Ortotipografia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, pp. 61-70.

45.– El párrafo: problemas y actuaciones.

Bibliografía: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 34-38.

46.– Las enumeraciones.

Bibliografía: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 39-42.

47.– Las palabras y sus grupos: problemas y actuaciones. Número. Concordancia. Preposiciones. Gerundio. Nominalizaciones. Errores de construcción o anacolutos.

Bibliografía: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 50-70.

48.– La oración: problemas y propuestas de solución. Las construcciones pasivas. Oraciones yuxtapuestas en el lenguaje jurídico. Oraciones subordinadas. Estilo directo y estilo indirecto. Hipérbaton. Incisos.

Bibliografía: Libro de estilo de la Justicia. Dirigido por Santiago Muñoz Machado (2017). Barcelona: Espasa, pp. 71-96.

49.– Uso incorrecto de preposiciones españolas.

Bibliografía: García Yebra, Valentín (1982). Teoría y práctica de la traducción. Madrid: Gredos, pp. 824-847.

50.– Uso de las preposiciones. La estructura del tipo sustantivo + a + infinitivo. La presencia y la ausencia de la preposición de en las perífrasis con el verbo auxiliar deber + infinitivo. La presencia y la ausencia de la preposición de delante de la conjunción que. La preposición a con los verbos acostumbrar y dignarse.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española. (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

51.– Leísmo, laísmo y loísmo. Regímenes de algunos verbos: debatir y atravesar. Quedarse. Incautarse. Urgir. Suspender. Contactar. Recurrir. Repercutir. Apelar. Callar. Estallar y explotar. Las formas cardinales veintiún, veintiuna mil; treinta y un mil, en combinación con sustantivos femeninos. Concordancias con el verbo haber.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

52.– El quesuismo: que su, que sus. Enunciados con la conjunción que en estructuras enfáticas. Oraciones exclamativas con la partícula expletiva que.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

53.– El gerundio. El infinitivo en uso independiente con verbos como comunicar, decir, señalar, indicar, informar.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

54.– Ortografía. El grupo inicial ps- El grupo -pt-. Uso de la mayúscula inicial en fórmulas de tratamiento. En títulos y cargos. En los sustantivos que designan accidentes geográficos. En el artículo que forma parte del nombre de las comarcas. La secuencia por que y la palabra porque. Escritura del prefijo ex- y de los demás prefijos. La preposición sin con valor de prefijo. Escritura del prefijo pos-/post-. Escritura del prefijo trans-/tras-.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

55.– Acentuación. La palabra solo. Los pronombres demostrativos. Palabras del tipo guion. (A) donde, como, cuando, que, quien con los verbos haber, tener y otros similares. Los relativos en estructuras con las palabras según e independientemente, y con las formas del verbo depender y de otros. El adverbio interrogativo cómo y la conjunción subordinante como (equivalente a la conjunción que). La conjunción o entre cifras. Las palabras aun y aún. El prefijo super-.

Bibliografía:

GómezTorrego, Leonardo (2011). Normas académicas. Últimos cambios. Madrid: Ediciones SM.

Real Academia Española (2009). Nueva gramática básica de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

56.– Funciones de los signos de puntuación. Uso de los signos de puntuación: el punto, la coma, el punto y coma, los dos puntos, los paréntesis, los corchetes, la raya, las comillas, los signos de interrogación y exclamación, los puntos suspensivos. Los signos auxiliares: el guion.

Bibliografía: Real Academia Española (2010). Ortografía de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros.

57.– Puntuazioa (Eusko Legebiltzarraren jarraibideak). Puntua. Koma. Puntu eta koma. Eten puntuak. Bi puntuak. Enumerazioa. Parentesiak. Marra luzeak. Kakotxak. Marra txikia. Beste batzuk.

Bibliografía: Eusko Legebiltzarra. Puntuazioa.

http://www.legebiltzarra.eus/oposic/e_oposic_1.html.

58.– Puntuazioa. Jarraibide praktiko batzuk. Puntuazio-kontuak lantzeko zenbait kontzeptu. Esaldien artean erabiltzeko puntuazioa. Esaldi barnean erabiltzeko puntuazioa: koma soilaren esparrua. Tartekien puntuazioa. Esaldiaren informazio-antolaera.

Bibliografía: Garzia Garmendia, Juan (2014). Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, pp. 23-90.

59.– Ortotipografía (Eusko Legebiltzarraren jarraibideak). Letra larriak. Letra etzana. Kopuruak. Izen bereziak. Maileguak. Labur hitzak.

Bibliografía: Eusko Legebiltzarra. Ortotipografía (Eusko Legebiltzarraren jarraibideak). http://www.legebiltzarra.eus/oposic/e_oposic_1.html.

60.– Ortotipografía (Normas de redacción del Parlamento Vasco). Mayúsculas. Cursiva. Cantidades. Abreviaciones. Acento. Léxico.

Bibliografia: Eusko Legebiltzarra. Ortotipografia (Normas de redacción. Parlamento Vasco).

http://www.legebiltzarra.eus/ oposic/e_ oposic_ 1.html.

61.– Funciones y uso de la mayúscula. Para delimitar las unidades textuales principales. Para marcar los nombres propios y las expresiones denominativas. Para formar siglas. Para favorecer la legibilidad. La llamada mayúscula diacrítica. La mayúscula de relevancia. La mayúscula en los números romanos.

Bibliografía: Real Academia Española (2010). Ortografía de la lengua española. Madrid: SLU Espasa Libros, pp. 441-515.

62.– Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordearen terminologia-lanerako irizpideak.

Bibliografía: Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordea. Terminologia-lanerako irizpideak.

<https://www.euskara.euskadi.eus/informazioa/terminologia-batzordeak-onartutako-hiztegiak/r59-738/eu/>.

63.– Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean.

Bibliografía: Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordea. Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean.

<https://www.euskara.euskadi.eus/informazioa/terminologia-batzordeak-onartutako-hiztegiak/r59-738/eu/>.

64.– Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak.

Bibliografía: Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordea. Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak.

https://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/terminologia_2013/eu_edukia/plangintza.html.

65.– Hizkuntza-baliabideak. Euskalbar eta Hiztegiabar. Hiztegiak. Euskaltzaindiaren hizkuntzabaliabideak. Itzulpen-memoriak. Corpusak. Estilo-liburuak. Kontsultaguneak. Terminologia.

Baliabidea: Hizkuntza-baliabideak. EIZIE Elkartea. https://eizie.eus/eu/baliabideak/hizkuntza_baliabideak.

66.– Tresnak. Itzulpen automatikoa. Kalitate kontrola. Ordenagailuz lagundutako itzulpena. Terminologia. Urruneko interpretazioa. Zuzentzaileak.

Baliabidea: Hizkuntza-baliabideak. Tresnak. EIZIE Elkartea. <https://eizie.eus/eu/baliabideak/tresnak>.

67.– Itzultzaile juridiko-administratiboa. Aurkezpena. Lan praktikoak aztertzen. Kalitatea. Jatorrizko testua. Xede-testuaren emaitza aldakorra da. Joskera. Terminologia. Ortografia. Lege-xedapenen izenburuak. Hitez hitzeko aipuak. Administrazio sail eta erakundearen izen ofizialak. Euskaratik gaztelaniarako itzulpenak.

Baliabidea: Itzultzaile automatikoa. Neuronala. IVAP, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak. <https://www.ivap.euskadi.eus/itzultzaile-automatiko-neuronala/z16-a2izo/eu/>.